

HAURDUNALDI SUBROGATUA

Ezezagutzaren kristalaren atzetik ikusten den lagundutako ernalketa metodoa

 **JENDARTEA** / amagoia.mujika@gaur8.info

Haurdunaldi subrogatua lagundutako ernalketa metodo bat da. «Alokairuzko amak» bezala ezagunagoa da jendartean, eta izendatzeko modutik bertatik igartzen da tabuen eta aurreiritzien gainean eraikia izan dela. Metodo ezezaguna da, baina Euskal Herrian bertan gero eta jende gehiagok jotzen duen atea.

Leire eta Igor Muskizkoak dira. Beren seme-alaba bikiak Boisen jaio ziren uztailean. Sam erditu zen bikiez, baina gurasoak beraiek dira. GAUR8

Haurdunaldi subrogatua. Terminoak mahai gainean jarri orduko Leirek barre egin du, «gustatu zait», dio. Izan ere, normalean erabiltzen den «alokairuzko amak» esapidea ez zaie batere gustatzen Leireri eta Igorri. Hizketan lasaia egiteko, Oihan eta Maren amonarekin utzi dituzte. Beren bikiak Boisen (Idaho) jaio ziren uztailearen 21ean. Leire bere seme-alaben erditzean egon zen, baina ez zen bera erditu, Sam baizik, Boisen bizi den irakasle bat. Sam izan da Leire eta Igorren txikien haurduna.

Muskizko bikoteak ezin du seme-alabarik ekarri modu biologikoan eta ernalketa subrogatuaren bidea ibiltzea erabaki du. Ez da ernalketa modu berria, baina bai oso ezezaguna. Eta ezezaguna den neurrian, tabuz eta aurreiritziz josia.

«2012an osasun arazo bat izan nuen eta linfangioleiomiomatosis (LAM) izeneko gaixotasuna diagnostikatu zidaten. Oso gaixotasun arraroa da eta emakumeei eragiten die. Euskadin hamar emakumek daukagu. Haurdun geratzeko aukera badaukat, baina oso arriskutsua da, eta ez dut nire bizitza arriskuan jarri nahi», hasi du kontaketa Leirek. «Pentsatu genuen lehen gauza adopzioa izan zen. Informazioa biltzen hasi ginen eta konturatu ginen oso prozesu luzea dela, lau zapabost urte. Eta, gainera, Leirek daukan gaixotasun kronikoa ere arazoa izan daiteke adoptatzeko ga-



raian, zorrotz begiratzen baitute gurasoen osasun egoera. Gainera, ez ginen hain gazteak, une horretan 39 urte genituen eta lehenbailehen nahi genuen seme-alabak izan», segitu du Igorrek. Eta, Google-era jo zuten. «Ezagutzen genuen ‘alokairuzko ama’ terminoa. Bagenekien zenbait famatuk bide hori erabili zutela guraso izateko. Eta horrela hasi ginen informazio bila».

Igor kazetaria da eta urte askoan bidaiatu izan du Boiseran, Idahon, bertako euskal komunitatearen inguruko erreportajeak egiteko. «Lagunak dauzkat bertan eta horregatik aztertu genuen Boisen egiteko aukera. Ikusi genuen posible zela bertan egitea ernalketa subrogatua eta horretan aritzen diren agentziak begiratzen hasi ginen».

«Agentzia batekin harremanetan jarri ginen eta primeran joan da guztia hasieratik. Egia da hasieran bagenuela kezka, dirua aurretik bidali behar baita eta horrek ezinegon pixka bat sortzen zigun. Baina martxan jarri eta dena ondo zihoala ikusi genuenean, lasaitu egin ginen», gaineratu du Leirek.

AEB-ETAN, ARAUTUA ETA NORMALDUA

Haurdunaldi subrogatuak lege egoera oso desberdinak bizi ditu munduan barna. Estatu espainoleko 2006ko Lagundutako Ugalketaren Legeak ez du jasotzen ernalketa mota horri buruzko aipamenik. Estatu espainolean ez da legezkoa, ezta Estatu frantsesean ere.

Horregatik, haurdunaldi subrogatuaren bidea abiatu nahi duten euskal herritarrek kanpora joan behar dute. Ameriketako Estatu Batuak, Mexiko, Errusia, Ukraina, Tailandia... bada nora jo, baina desberdintasun handiak daude batetik bestera, bai prezioan, baita ziurtasun legalari dagokionez ere.

Leirek eta Igorrek Ameriketako Estatu Batuetara jo zuten, Idahora zehazki. «Hasiera batean, eta nola Indiako kasu bat ezagutzen genuen, Indiara joatzeko aukera aztertu genuen. Baina bagenekien han arazoak izan zitezkeela, ez zela hain ziurra. Eta nahiz eta India merkea-

goa izan, Boisera joatea erabaki genuen, seguruagoa zelako eta lagunak genituelako bertan», kontatu du Leirek.

Ameriketako Estatu Batuetan haurdunaldi subrogatuaren inguruko araudia aldatu egiten da estatu batetik bestera. Batzuetan ez da legezkoa, baina beste batzuetan erabat arautua dago, jendarteak begi onez ikusten du eta ohiko praktika bat da.

Boiseko erietxe bat aukeratu eta Igor joan zen duela hamabost bat hilabete. Izapideak martxan jarri, hazia erietxean utzi eta haurduna aukeratzeko prozesua abiatu zuen. Izan ere, AEBetan bikoteak aukera dezake haurdunaldian parte hartuko duen emakumea. Baina, era berean, emakume horrek ere aukeratu egin behar du lagunduko duen bikotea.

«2013an joan nintzenez, hiru emakumerekin egon nintzen. Gure istorioa kontatu nien eta elkar ezagutu genuen. Etxera bueltan, Leirek eta biok erabaki genuen zein emakume izatea nahi genuen. Hartara, gure proposamena helarazi genion Sami eta berak baiezkoa eman zuen. Horrela behar du, berak ere onartu behar gaitu gu», kontatu du Igorrek.

Leirek eta Igorrek Sam aukeratu zuten, beraz. «Sam irakaslea da, ezkondata dago eta bi seme-alaba dauzka, hiru eta sei urtekoak. Hori da, gainera, haurdunak bete behar duen baldintzetako bat. Aurretik ama izan behar du, ezagutu behar du haurdun egotearen sentipena, haurdunaldi onak izan behar ditu eta bere amatasun behar hori aseta izan behar du. Oso zorrotz aukeratzen dituzte ernalketa subrogatuan parte hartu dezaketen emakumeak», zehaztu du Leirek.

Behin aukeraketa fasea egin da eta Muskizko bikoteak eta Samek elkar ezagutu ondoren, ohiko lagundutako ernalketa moduen bidez bideratzen da haurdunaldia. «Gure kasuan hazia Igorrena da, baina obulua ez da nirea. Nik baditut obuluak, baina horiek lortzeko prozesua nire kasuan arriskutsua da eta obulu emaile batengana jotzea



Haurdunaldi subrogatua ernalketa modu nahiko ezezaguna da eta zalantzak sortu ditu egungo jendartean. Hala ere, ikuskera hori aldatzen ari da. GAUR8

erabaki genuen». Puntu horretan, aukerak anitzak dira. Batzuetan hazia eta obuluak gurasoenak dira; beste batzuetan bata edo bestea bakarrik; edo gerta daiteke seme-alabek gurasoekin inolako lotura biologikorik ez izatea. Hori bai, normalean haurdunak ez dauka inongo lotura biologikorik barruan daraman haurrarekin.

«Guk zorte handia izan dugu. Lehen saioan lortu genuen haurdunaldia. Askotan ez da horrela izaten eta horrek prozesua garestitzen du. Baina oso gogorra da zure seme-alaben haurdunaldia milaka kilometrora biziitzea. Etengabe ari ginen pentsatzen Sam nola egongo zen, umeak nola egongo ziren... Egia esan ia egunero egiten genuen berba Samekin, eta whatsapp-etik ere etengabe aritzen ginen. Eta zortea izan dugu, Sam oso zentzuduna da eta oso haurdunaldi lasaia izan du», kontatu du Igorrek.

Leirek aitortu duenez, bereztat gogorxeagoa izan da haurdunaldirik gabeko amatasuna, «haurdun zaudenean inguruko

NAZIOARTEKO MAILAKO PANORAMA

Haurdunaldi subrogatuaren prozesua asko aldatzen da metodoa egiten den herrialdearen arabera, bai baldintzetan, bai diruan. Prozesuak babes legal zehatza dauka Ameriketako Estatu Batuetako estatu batzuetan, Ukrainan, Errusian eta Mexikon, besteren artean. Beste toki batzuetan ez dago legedi zehatzik, eta hain justu hutsune legal hori baliatuz egiten da subrogazioa, Tailandian eta Indian kasu.

AEBetako estatuen artean egoera desberdina da, baina denek daukate tasun berdin bat: babes judizialaren pean egiten da prozesua eta segurtasun juridikoa handia da. Traba nagusia da AEBetan medikuntza pribatua eta oso garestia dela eta subrogazioa garestien bertan izaten dela, 70.000 eurotik hasi eta goitik mugarik gabe.

Beste herrialde batzuetan ere arautu da, Ukrainan kasu. Baina herrialdeak bizi duen egoera politiko nahasia dela-eta, oraintxe ez da oso helmuga fidagarria. Azken urteotan, hala ere, gero eta jende gehiagok aukeratu du Ukraina, AEBetan baino merkeagoa baita prozesua. Ukrainan, baina, homosexualek eta guraso bakarreko familiek atea itxita daukate.

Mexikora ere gero eta jende gehiago ari da gerturatzen, prezioari begiratuta, AEBak baino merkeagoa delako eta bikote homosexualak

eta guraso bakarreko familiak onartzen dituelako.

Uda honetan Tailandian nahiko nahasmen izan da haurdunaldi subrogatuaren kontura. Artean ez zegoen egoera horiek arautzen zituen legerik, eta horretan ziharduten erietxeak erabateko linboan ari ziren. Berriki ikertu dituzte erietxe horiek eta denetarik topatu dute; lanean oso txukun eta ondo ari ziren erietxe eta medikuak, eta baita inongo baimenik gabe eta baldintza kaskarretan ari zirenak ere.

India une honetan Estatu espainoletik doazenentzat itxita dago. Izan ere, Espainiako Justizia Ministerioak subrogazioak onartzen ditu bakarrik prozesuak babes judiziala izan duen kasuetan, eta Indian ez dago halakorik.

Artean Europa mugitzen ari da pixkanaka. Hagako Nazioarteko Konferentzia txosten zehatza lantzen ari da subrogaziotik sortzen diren arazo legalak aztertzeko, Europako herrialde askotan arazoak sortzen ari baitira. «Son nuestros hijos» elkartetik begi onez ikusten dute txosten hori, eta beren laguntza eskaintzen ari dira. «Lehen, eskandaluarekin lotzen zen teknika hau eta dagoeneko Europa pentsatzen hasia da nola arautu behar duen», adierazi dute bertatik. Normalkuntzaren bidearen hasieran daudela sentitzen dute.



jendeak ikusten du tripatxo handitzen. Baina gure kasuan azalpen asko eman behar izan ditugu. Jendeak ez du metodo hau ezagutzen, tabu eta beldur handiak daude... lankideei ia zazpigarren hilabetean kontatu nien ama izango nintzela. Eta ez zuten ezer ulertzen».

Etxekoek, berriz, ondo hartu zuten hasieratik. «Bi aitonamontentzat lehen bilobak dira eta oso pozik jaso zuten albistea, baina, aldi berean, zalantzaz eta beldurrez beteta. Oso ondo agertu diegu prozesua eta etengabe erantzun ditugu beren galderak», esan du Igorrek. «Beldurrik handiena zen; ‘eta gero amak ez badizkizue eman nahi?’ Eta nik esaten nien, ‘baina ama ni naiz’», gaineratu du Leirek.

«Sam erditu baino aste pare bat lehenago joan ginen Leire eta biok Boisera. Egun batean, azoka batean genbiltzan elkarrekin paseoan eta emakume bat gerturatu zen Samengana haurdunaldiagatik zoriontzera. Eta Samek esan zion gureak zirela haurrak, ez bereak. Hunkitu egin zen eta Sami sekulako besarkada eman zion, ‘zer gauza polita egiten ari zaren’, esanez. Gero gugana gerturatu eta besarkatu eta zoriondu egin gintuen. Oso momentu berezia izan zen denontzat», kontatu du Igorrek.

AEBetan ernalketa subrogatuak bere bidea egin du eta jendartean begi onez ikusten da.

Modu biologikoan seme-alabak izan ezin dituztenentzat aukera bat da ernalketa subrogatua. Adopzioa baino azkarragoa da eta normalean garestiagoa.
GAUR8

Haurdunak ordain ekonomikoa jasotzen du eskaintzen duen laguntzaren truke, baina horretara daraman arrazoi nagusiak ezin du ekonomikoa izan. Eta hori zorrotz neurtzen dute txosten psikologiko osatuen bidez.

«Gure gizartean amatasuna oso desberdin ikusten da. Hemen, ama erditzen dena da eta legeak ere ideia horren bueltan daude eginak», iritzi dio Leirek.

Leire ez da Oihanez eta Marenez erditu, baina beren ama da. «Samen ondoan egon nintzen erditzeko unean. Igorrek ezin izan zuen sartu. Bikiak zirenez, mediku asko zegoen eta bakarra sartzeko baimena eman ziguten. Samek bultzatzen zuenean neronek bultzatu egiten nuen. Horrela sortzen zitzaidan. Lehendabizi Maren irten zen, eta gero Oihan. Oso hunkigarria izan zen. Sekulako gogoa nuen handik atera eta Igorri haurrak erakusteko. Lauak elkarrekin

egon ginen denbora luzean. Oso berezia izan zen. Samen senarra ere han egon zen...». Igorrek eta Leirek harremanetan segitzen dute Samekin eta bere familia-rekin, eta aurrerantzean hala izatea nahi dute. «Haurren argazkiak bidaltzen dizkiegu eta harremanetan gaude. Gure seme-alabei ez diegu gezurrik esango, garbi azalduko diegu nola jaio ziren eta etorkizunean Boisera joango gara Sam eta bere familia ezagutu ditzaten», agertu dute.

Dena primeran atera zen eta horretan zorte handia izan dute la uste dute Leirek eta Igorrek. Izan ere, AEBetan osasungintza pribatua eta oso garestia da. «Pentsa, bikiak izanda gerta daiteke arazoren bat izatea, goizegi jaiotzea eta inkubagailuan egon behar izatea egun batzuetan. Egun bakoitzeko 6.000 dolar inguru ordaindu behar dira. Gure kasuan 70.000 euro inguru kostatu zaigu. Baina normalean hortik gorako kopuruak izaten dira AEBetan», kontatu du Igorrek.

ERREGISTROAREKIN ARAZOAK

2010. urtean Espainiako Justizia Ministerioak lehenengoz onartu zuen ernalketa subrogatuaren bidez jaiotako haurrak Erregistro Zibilean erregistratzeko aukera. Ordurako bikote askok egin behar izan zuten borroka, “Son nuestros hijos” elkartearen bultzadaz. 2014ko otsailean, baina, Epaitegi Gorena trabak jar-

tzen hasi zen erregistro horiei eta ziurgabetasun egoera larria sortu zuen berriro familia horien baitan.

Horrela abiatu ziren Leire eta Igor Boisera uztailean, beren seme-alaben erregistroa zertan izango zen jakin gabe. Uztailearen 11n jakin zen Justizia Ministerioak berriz onartuko zituela erregistro horiek. Ordurako «son nuestros hijos» izeneko kanpainak bere bidea egin zuen. Baina horrek baino pisu handiagoa izango zuen, segur aski, Estrasburgoko Giza Eskubideen Epaitegitik Estatu frantsesari iritsitako zigorra haurdunaldi subrogatuaren bidez jaiotako haurren erregistroak ez onartzeagatik. Estatu frantsesari gertatutakoa ikusita, Estatu espainolak erregistroen atea irekitzea erabaki zuen.

«Hegazkinera sartu aurretik twitterren irakurri nuen berriz erregistroak onartuko zirela zioen albistea eta hara iritsitakoan konfirmatu genuen. Sekulako poza eta lasaitua hartu genuen», kontatu du Igorrek.

Baina trabak ez dira amaitu. Orain, Leireren amatasun bajaran bueltaka dabilta. «Gizarte Segurantzara joan naiz eskatzera eta amatasun txostena eskatu didate, medikuak sinatuta. Baina ni ez naizenez erditu, ez daukat hori. Orduan, beste paper bat eskatu didate adopzioa edo zer izan den azaltzeko. Eta hor nabil bueltaka. Pentsatzen dut orain ez didatela amatasun baja ordainduko, aurretik beste batzuei ere horrela gertatu zaie eta. Eta urte batzuetara, epaitegi batera eta bestera joan ondoren, agian lortuko dut. Baina oso bide nekeza da», agertu du Leirek.

Igor kazetaria da eta prozesu guztia jaso du bere bideo kamerarekin. Bere asmoa da urtea amaitu baino lehen dokumental bat egitea haurdunaldi subrogatuaren berri garbi emateko, tabuetatik eta aurreiritzietatik aparte. «Saiatuko naiz urtea amaitu baino lehen amaitzen. Material asko daukat eta niretzat oso proiektu interesgarria da. Ea Oihanek eta Marenek denbora pixka bat uzten didaten», bukatu du Igorrek.

«Niretzat gogorra izan da haurdunaldirik gabeko haurdunaldia. Zazpi hilabeteko geundela esan nien lankideei ama izango nintzela, eta ez zuten ezer ulertzen»

Leire eta Igorren bikiak Boisen jaio ziren uztailean eta dagoeneko Muskizen daude. Erregistratzeko arazorik ez dute izan, baina orain amatasun bajarekin bueltaka dabilta

ANTONIO VILA CORO

«SON NUESTROS HIJOS» ELKARTEKO LEHENDAKARIA

«2008an, herriaren defendatzailearengana joan eta gaizkileak bagina bezala hartu gintuen eta, orain, besoak zabalik hartzen gaitu»

Antonio Vila Coro madrildarra “Son nuestros hijos” elkarteko lehendakaria da. 2008. urtean sortu zenetik, elkarreak lan handia egin du ernalketa subrogatuaren gaia gizarteratzeko, tabuak deseraikitze eta bide horretan dauden traba sozial eta judizialak gainditzeko. Filiazioa estuki lotzen zaie erditzeari eta biologiari Estatu espainolean, bai moralaren aldetik, bai, batez ere, legeetan. Hori aldatzeko behar larria ikusten du Vila Corok, gurasoa guraso izan nahi duena baita.

Azkenaldian asko ari da aipatzen haurdunaldi subrogatua. Normaltzen ari dela uste duzu?

Askok ari da aipatzen horren inguruan gertatzen ari diren gertaera judizialak direla eta. Haurren erregistroaren inguruan korapilo handiak sortu dira. 2010. urtean –eta borroka askoren ondoren– azkenean lortu zen haurrak normaltasunez erregistratzea, eta aurtengo otsailean berriz hasi dira trabak jartzen. Azkenean, uztailen Estrasburgok Frantzia zigortu zuen antzeko kasuak zirela medio, eta ondorioz Espainiako Justizia Ministerioak ere atzera egin zuen, eta erregistroak onartzen hasi da berriz. Egia da ernalketa subrogatuaren fenomeno asko ari dela zabaltzen, eta oso serio hartzekoa eta geldiezin da.

Orain arte «alokairuzko amak» aipatzen ziren eta jende famatuarekin lotzen zen kontua, oso modu sentsazionalistan, gainera.

Horrela da. Eta horregatik guk, elkar bezala, errealitate hau bistaratu nahi izan dugu. Hori izan da gure egiteko nagusietakoa, jendarteak ezagutu dezan zertan den ernalketa mota hau eta zein arazo izaten ditugun metodo horretara jotzen dugunok. Elkarrea sortu eta gaiari buruz hasi ginenetik gaur arte sei urte joan dira, eta gizarreak haurdunaldi



GAUR8

subrogatuaren inguruan daukan ikuspegia erabat aldatu da. Gogoan dut 2008. urtean herriaren defendatzailearengana joan ginela eta gaizkileak bagina bezala hartu gintuztela. Orain, besoak zabalik hartzen gaituzte. Komunikabideek ere ondo tratatu gaituzte. Guk aurpegia eman dugu, informazio garbia eskaini dugu, parte guztien eskubideak nola babesten diren kontatu dugu, ernalketa metodo bat besterik ez dela azaldu dugu... eta horrek emaitzak eman ditu.

Oraindik badago, hala ere, prozesua ikuskera moraletik epaitzeko joera.

Gizartearen parte batentzat, kristau batentzat kasu, enbrioi bat gauza sakratua da eta enbrioi batekin egiten den edozer gaitzesgarria izango da beraz. Iruditzen zait garai batean abortuak bizi zuen egoera berdintsua bizi duela orain haurdunaldi subrogatuak: Espainian ezin zen egin eta emakumeek atzerrira joan

beharra zuten. Abortuaren kasuan penalizatuta zegoen; subrogazioa, ez.

Subrogazioaren kasuan oso garrantzitsua da gurasoak nortzuk diren zehaztea, beren betebeharrak eta eskubide guztiekin. Nola egiten da hori?

Herrialde bakoitzean desberdina da. Ondoen arautua AEBetan dago, nahiz eta desberdina den estatu batean eta bestean. Kasu askotan haurrak jaio baino lehen familia epaitegi batean zehazten da subrogazioaren kontratua. Haurdunaldiaren azken txanpan egiten da kontratua, eta garbi adierazten da zeintzuk diren haurraren gurasoak, haurra jaio aurretik beraz. Gauzak oso garbi hasieratik. Filiazioa oso-oso garbi zehazten da, eta sor daitezkeen arazoan zerrenda luze bat ere aurreikusten da, kasu bakoitzean irtenbide legala zein den zehaztuz. Prozesu luzea da, bizpahiru pertsonen parte hartzen dute eta edozer

«Estatu espainolean haurdunaldi surogatua arautzeak asko erraztuko lituzke gauzak. Gogorra da zure seme-alabak milaka kilometrora dagoen emakume baten sabelean daudela pentsatzea»

gerta daiteke. Horregatik da hain garrantzitsua lege zuzenak oso garbi eta ondo zehaztea.

Estatu espainolean filiazioa estu lotzen da lotura biologikoarekin. Legeak ere horren bueltan daude, ezta? Horrela da. Guk harrituta ikusten dugu Kaliforniako kasua. Han jurisprudentzia propioa dauka ernalketa subrogatuak eta filiazioa ez da lotzen biologiarekin, intentzioarekin baizik. Familia proiektu hori egin nahi duena eta proiektu hori bultzatzen duena da gurasoa, nahiz eta biologikoki inolako loturarik ez izan haur horiekin.

Abuztua hasieran hautsak harrotu dituen kasu bat gertatu da. Australiako bikote batek Tailandiako emakume baten laguntzaz bikiak izan zituen haurdunaldi subrogatuaren bidez. Bikietako batek Down sindromea zuenez, ez zuten etxera eraman.

Bakarra eraman zuten, adimen urritasunik ez zuena.

Eta oso kasu larria da, baina ez da haurdunaldi subrogatuaren ondorioa. Zalantzarik gabe gurasoek abandonatu egin dute haur hori, eta haiengan jarri behar da fokua eta ardura. Arazoa da Tailandian ez dagoela zorrotz araututa subrogazioa. Esaterako, abandonu hori AEBetan gertatu izan balitz, oso garbi legoke gurasoek abandonatu dutela haurra, filiazioa oso garbi egongo bailitzateke haurrak jaio baino lehen. Eta, beraz, ardura legal eta ekonomiko guztiak gurasoenak izango lirateke, argi eta garbi.

Munduko toki zenbaitetan, Indian kasu, ernalketa subrogatuan parte hartzen duten emakumeen egoera txarra dela salatu izan da maiz.

Guk ernalketa subrogatua defendatzen dugu, moralki onargarria eta defendagarria iruditzen zaigulako. Segur aski munduko toki batzuetan praktika txarrak eta desegokiak izango dira horren bueltan. Praktika txarrak gaizki egituratutako sistema baten ondorio dira. Horregatik defendatzen dugu

haurdunaldi subrogatua zehatz eta zorrotz arautzea munduko toki guztietan, hori parte guztien mesedetan izango delako.

Estatu espainolean martxan da herritarren ekimen legebile bat haurdunaldi subrogatuak legeztatzeko eta arautzeko eskatuko duena.

Aurreikusten da 2015ean aurkeztuko dela Kongresuan.

Horretan ari gara, sinadurak biltzen. Izan ere, laster sartuko da indarrean Erregistro Zibilaren lege berria, eta egoera berezia gertatuko da. Estatu espainolak atzerriko haurdunaldi subrogatuak onartuko ditu, baina ez estatuan bertan. Bitxia da egoera. Hortik abiatuta, Espainian arautzea bultzatu nahi da. Hori da asmoa. Urrats oso garrantzitsua izango da.

Asko aldatuko litzateke panorama Estatu espainolean haurdunaldi subrogatuaren bidea irekiko balitz, ezta?

Zalantzarik gabe. Ernalketa teknika hori erabili behar dutenek ez lukete atzerrira jo beharko, etxetik gertu egin ahal izango lukete prozesu guztia. Gogorra da zure

seme-alabak milaka kilometrora dagoen emakume baten sabelean daudela pentsatzea. Horrek asko erraztuko lituzke gauzak. Bidaia luzeak ekidin, izapideak, marko legal desberdinak, kezak... Eta ekonomikoki ere bideragarriagoa izango litzateke, eta atzerrian uzten den diru hori guztia estatuan geratuko litzateke.

Estatu espainolean arautzen bada, legedi bat prestatu beharko da. Nolako legeak aldarrikatzen dituzue?

Guk sistema praktikoa bat aldarrikatzen dugu, ugalketa arazoak dituzten familientzako benetako irtenbidea izango dena. Eta horrek berekin dakar emakumearentzako ordain ekonomikoa. Ezinbestekoa ikusten dugu, baita moralki ere, eskainitako zerbitzu horren truke dirua jasotzea. Beste donazioen kasuan ere ordainketa bat dago tartean, bai hazia ematen dutenentzat, baita obuluak ematen dituztenentzat ere. Subrogazioarekin, berdin. Guretzat onargarria da hori. AEBetan ere hala dago arautua, baina ordain ekonomikoak ezin du izan subrogaziorako motibazio nagusia. Eta hori oso zorrotz zaintzen da. Badaude ereduak, batzuk jarraitu

beharrekoak eta besteak, ez. Esaterako, Erresuma Batuan arautua dago subrogazioa baina legedi oso-oso hertsia da eta, ondorioz, oso kasu gutxi ematen dira urtean. Are gehiago, Erresuma Batuko jendea Ameriketako Estatu Batuetara jotzen ari da haurdunaldi subrogatuak egitera. Guk ez dugu horrelako sistemarik nahi.

Gizartea beti joaten da legeen eta araudiaren aurretik. Baita kasu honetan ere?

Hori espero dut, horretarako egiten dugu lan. Egia da subrogazioaren inguruko ikuskera asko aldatu dela. Filosofiako irakasle batek esana da «ikuskera moral desberdina duen gutxiengo bat» garela gu. Agian bai. Baina munduan barna bidaiatu eta gure ikuskera asko zabaldu dugu, eta etorri eta gure gizarteari ikusi duguna kontatzen diogunean gizarteak ere zabaldu egiten du bere ikuskera. Uste dut hori pasatzen ari dela. Gure seme-alabekin bueltatu eta gure ingurukoei istorioa kontatzen diegunean galderak, kezak eta zalantza moralak sortzen zaizkie. Baina prozesua ezagutzean, erabat aldatzen da beren ikuskera.

Diruzurrak

Amaia Agirre

Zer da egia? Zer da gezurra? Zer da aurpegia izatea? Eta zer iruzurra egitea? Javier Marotoren hitzek aurkako iritziak sorrarazi dituzte, eta zenbaitengan mina eragin ere bai. Baina bada aldekorik ere, bai noski. Izan gaitezzen errealista. Joka dezagun garbi, dirua tartean denean joko zikina nagusi baldin bada ere. Etorkinak gizarte laguntzetatik bizitzera etortzen direla esan zuen Gasteizko alkateak, eta urak harrotu dira.

Nik duela urtebete zortea izan nuen hainbat eta hainbat etorkini egindako elkarriketak entzuteko, eta horietako bakar bat ere ez zen Euskal Herrira bizkarroi zereginetara etorri. Norbere sorterrria eta jaiotetxea uztea bizitzako erabakirik gogorrenetakoa da. Zer esanik ez seme-alabak eta bikotea han utzi behar badituzu.

Nire arreta bereganatu zuen kontu bat

bazen elkarriketa horietan, ordea. Gipuzkoako herri txiki batean bizi zen familia baten testigantzak hunkitu ninduen. Baserrri batean lanean ari zen bikote baten kontakizuna zen. Hiru seme-alabarekin bizi ziren euren inoiz izango ez zen baserri batean. Lanaren truke irabazten zuten eguneroko ogia, eta baserriaren jabeekin batera bizi ziren, errespetuan eta elkarbanaketan oinarritzen zen bizimodua eraikiz. Euren sorterrrian eskuratzea ezinezkoa zitzaien etorkizun batekin ametsetan.

Euskal herritarrok etorkinekiko genuen jarreraren inguruan galdegin zitzaientean, honelaxe erantzun zuen amak: “Gu geu etorri gara beste lurralde batera, eta guk geuk eman behar ditugu lehenengo pausuak. Guk geuk egokitu behar dugu bertara eta bertako ohituretara zein hizkuntzara. Ahalegin hori eginez gero, nonahi izango gara ongietorriak”.

Xapo! Herri txiki eta euskaldun batean bizitzeak onurak eta zailtasunak ere bazituela gaineratzen zuten, baina euren seme-alabak dagoeneko euskaldunak zirela aitortzen zuten, eta horrek zimiko bat eragiten

zion. Hego Ameriketakoak dira, baina Euskal Herriko biztanleak, eta nortasuna baikoitzak bere modura eraikitzen du.

Barne gatazka izugarria bizi du familia horrek. Seme-alabek ez dute gurasoen sorterrira itzuli nahi, baina gurasoek ez dute beste desirarik. Inpotentzia, esker ona eta poz gazi-gozoen artean, bazen samina eragiten zion zerbait, eta elkarriketatzaileari argi utzi nahi izan zion: “Etorkinok ospe txarra dugu zenbaiten artean, baina gure artean ere denetarik dago. Egia da batzuk kolpe zorririk jo gabe bizi direla gizarte laguntzei esker, baina nik lehenengo lau hilabeteetan soilik eskatu nuen laguntza, eta ez dut kanpotik gatozen langileon izena zikintzen utziko. Etorkinen artean, euskal herritarren artean bezalaxe, zuzen jokatzen dutenak daude, eta ahal duten heinean laguntzetatik bizi nahi dutenak ere bai”.

“Bejondeizula!”, pentsatu nuen neure artean. Gure etorkizunak kolore beltza omen du, baina ez dut uste euren azalak eman dionik kolore hori. Han eta hemen, era guztietako pertsonak eta jokabideak omen. Amen! •